

▶ ASTIGARRAGA

# Sagardo eta herri kirolen eguna

■ Herri Kirol Batzordeak eta Zipotzak egitarau erakargarria prestatu dute. ■ Uztargile bat lanean ikusteko aukera eskainiko da. ■ Sagardogintzaren inguruan eginiko bideoa proiektatuko da.

Herri Kirol Batzordeak eta Zipotza Elkarteak dena prest daukate egun arrakastatsu honetarako. Sagardo dastaketa eta herri kirol-tako probak ziurtatuta daude, baina nobedade batzuk izango dira aurreko urteekin konparatuz. Herritarren arteko kirol proba zein artisauek erakusketa.

O. SOTO


Herri Kirol Batzordeko ordezkaria den Antton Arkak egun honen helburua herri baten nortasuna plazaratzea dela gogorazten du, horregatik sagardogintza eta herri kirolak hurbiltzen saiatu dira aurreko urtean.

Aurreko edizioetako eskema bera mantentzen dute antolatzaileek, eta aldaketa puntualak saiatzen dira sartzeko urtero. Sagardo dastaketa ez da faltako gaur, baina horrekin batera sagardoa egiteko behar den tresneria erakutsiko da Foru Enparantzan eta bakoitzari buruzko informazioa emango da.

Sagardo festa honetan herriko sagardotegi guztietako sagardoa egongo da, trago bat baino gehiago hartzeko moduan. Probaketa errazteko pintxoak eskainiko dituzte Zipotza Elkarteak kideek.

Honekin batera Zipotza Elkarteak egin duen sagardogintzari buruzko bideoa proiektatuko da eta salgai jarriko da. Lan hau sagardotegiaren epealdirako prestatu zen, nolabait sagardoa egiteko jarraitu behar den prozesu guztia ezagutzeko. Bideoak piskanaka saltzen ari dira eta Zipotzaren asmoa da Euskal Herriko herri desberdinetan zabaltzea.

Egun honen beste nobedadea uztargilea izango da. Goizeko festak irauten duen bitartean artisauek uztargileak erakutsiko dira. «Normalean, baserriko lanekin zerikurisik duen artisauek erakutsen saiatzen gara, eta aurtengoa uztargilea izan da», zehazten du Arkak.



Jende ugari erakartzen du urtero Santa Ana Eguna.

Jan URBE

Hasieran artisauek feria antolatzen zen egun honetarako, mota desberdinetako produktuekin, baina azkeneko 5 urteotan artisauek bakar bat ekartzea erabaki dute antolatzaileek.

Sagardo dastaketak irauten duen bitartean bertso saioa egingo da Peñagarikano eta Sarasua bertsoariekin.

### Herritarren proba

Egunaren beste atal garrantzitsua herri kirolarena da, arratsalde burutzen dena. «Eginkizun honen helburua, batez ere, herritarren partaidetza zuzpertztea da. Horregatik herri probak antolatzen di-

tugu urtero; kasu honetan belar biltzearen inguruan izango da». Proba honen berri azalduko da gaur arratsaldean eta animatzen diren guztiak har dezakete parte.

Horrez gain, idi proba egingo da 2.000 kiloko harria garraiatuz, eguerdiko 12etatik aurrera. Honetan Lasarteko Telleriak, Frantzilla berriko J. Loizak eta Oreretako Intzinariek hartuko dute parte.

Harrijasotzaileen saioa arratsaldean burutuko da, bertan herriko Pello Senperena eta Oreretako J. Ostolaza arituko dira.

Herri kirolak bukatu aurretik, Antton Irazustabarrenak eta Luis Altunak egur lana egingo dute.

## Proba desberdinen bilduma

O.S.

Herri Kirol Batzordea jaietako eguna prestatzeko gain, herri kirolen inguruan ikerketa lana burutzen ari da eta liburuxka bat argitaratzea du helburu.

Batzordekideak dokumentazio lana egiten ari dira une hauetan, «informazioa biltzen ari gara leku batetik bestera eta aurrerago liburua kaleratzeko proposamena luzatuko dugu», dio Arkak.

Berreskuratzeke beste lan bat egiten du Herri Kirol Batzordeak, proba desberdinetako markak hain zuzen. «Herri pro-

betan egiten diren markak kontutan hartzen ditugu eta horiek gaitzeko proposatzen dugu antolatzen dugun hurrengo batean». Normalean, proba horiek Santa Ana eta San Isidro egunetan burutzen dira.

Aurtengo Euskal Herriko Sagardo Lehiaketari begira, batzorde honek hiru txapelketa desberdin antolatuko ditu: txinga, aizkora eta lokotsa. Proba hauek Gipuzkoko Herri Kirol-tako Federazioaren kolaborazioa izango du. «Gure asmoa lehiaketaren ospakizuna indartzea da».



33 cl.

6%Vol.

Nº Emb. 6697-S-S

ASTIGARRAGA (GIPUZKOA)

Elaborado por: Hnos. Lizeaga

# LIZEAGA

## SAGARDOAK

Edan eta eman edatera